

5/2026 Irizpena, otsailaren 11koa Foru Dekretuaren proiektua, zeinaren bidez onesten baita Talde multinazionalentzako eta talde nazional handientzako gutxieneko zergapetze-maila globala bermatzeko zerga osagarriari buruzko Erregelamendua.

Eskatzailea: Ekonomia eta Ogasun Departamentua

Txostengilea: Rafael Lara González

Interesa: Irizpenaren urgentzia. Kontsulta publikoaren izapidea ez egitea. Arauaren gehieneko atzeraeragina.

Proiektuaren xede nagusia da Talde multinazionalentzako eta talde nazional handientzako gutxieneko zergapetze-maila globala bermatzeko zerga osagarriari buruzko abenduaren 22ko 18/2025 Foru Legean aurreikusitako alderdi jakin batzuk garatzea eta haien interpretazioa erraztea, zerga osagarri berria nagusiki nazioartekoa dela kontuan hartuta.

Irizpena premiaz eskatu da, foru dekretua 2026ko maiatzaren 1a baino lehen indarrean jar dadin, egun horretan hasiko baita zerga osagarri berriaren aitorpenak aurkezteko epea. Hala ere, Europar Batasuneko zuzentarau baten (2022/2523 Zuzentaraua, alegia) transposizioaren atzerapenari ere erantzuten dio. Zuzentarau horren epea 2023ko abenduaren 31n bukatu zen, eta erregelamendu bidez garatu behar da, 18/2025 Foru Legea osorik aplikatzeko. Nafarroako Kontseiluak ohartarazi du presazko deklarazioa neurritz erabili behar dela, izapidetze azkar batek kalte egiten ahal baitio arauaren kalitateari. Hala ere, irizpena ahalik eta azkarren eman du.

Izapidetzeari dagokionez, Kontseiluak uste du ez dela behar bezala arrazoitu kontsulta publikoaren izapidea ez egitea; izan ere, erregelamendua onesteak karga handiak ekarriko dizkie zerga berriaren zergadunei, eta izapide hori ez egitea ez da nolabait zuzenduko, proiektua ondoren jendaurrean jartzeagatik Gobernu Irekiaren atarian.

Proiektatutako arauaren edukiaren azterketari dagokionez, Kontseiluak uste du, justifikazioari dagokionez, kendu egin behar dela, zerga osagarriari buruzko foru legea behar bezala interpretatze aldera, ELGAtik eratorritako interpretazio irizpideak jaso beharriari buruzko aipamena; izan ere, irizpide horiek agian ez datoz bat zerga legezkotasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioetatik eratorritako eskakizunekin, ezta zerga arauen interpretazioaren arloko foru erregulazioarekin ere.

Era berean, nabarmentzekoa da Kontseiluak azken xedapenetako bigarrenari buruz egiten duen azterketa, zeinak ezartzen baitu foru-dekretua argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean, 2023ko abenduaren 31tik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, 18/2025 Foru Legearekin bat etorriz. Hala ere, Kontseilu honen irizpenerako aurkeztu zen lege-proiektuaren hasierako testuak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ezartzen zituen, eta Gobernuak berak sartu zuen aldaketa hori Foru Parlamentura igorri aurretik, izapidetu zezan. Funtsezko aldaketa horrek arauaren irismena aldatzen du, eta Nafarroako Kontseiluaren aurretiazko irizpenaren baliagarritasuna murrizten du, bai eta gardentasun-printzipioa osatzen duten arau-kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioei eragin ere. Atzeraeragina 2023ra arte luzatzean, gutxieneko atzeraeragin batetik gehieneko batera aldatzen da, eta horrek segurtasun juridikoaren printzipioari eragiten dio.

Proiektuaren artikulua bakarrak Zerga Osagarriaren Erregelamendua jasotzen du, zeinak sei titulu (hogeita hamabi artikulua) eta hiru xedapen iragankor baititu. I. titulua eremu subjektiboa arautzen du; II. titulua zerga-oinarria eta zerga estali doituak zehazteko doikuntzei buruzkoa da; III. titulua zerga osagarriaren kalkuluari buruzkoa da, errentak sartzeko araua aplikatzeari dagokionez, talde multinazional edo nazional handi batean sartzen eta baztertzen diren entitate eratzailleen kasuan; IV. titulua zerga osagarriaren eta beste komunikazio batzuen informazio-aitorpenari buruzkoa da; V. titulua arau-hausteei eta zehapenei buruzkoa da; eta VI. titulua autolikidazioa jasotzen du.

Kontseiluak emandako irizpenaren arabera, Erregelamendua, oro har, bat dator garatzen dituen arau-gaikuntzekin, eta zerga osagarria behar bezala aplikatzeko behar diren aurreikuspenak jasotzen ditu. Hala, komunikazio-ereduak, informazio-aitorpena eta autolikidazioa foru-agindu bidez onestea baino ez da falta.